

2012

**Gurasoen Aurkako Indarkeri
egoeretako jokaeraren oinarrizko
gidaliburua**



Euskarri

Gurasoen Aurkako Indarkeri
Esku-hartzea.

Diru-laguntzarekin:

EUSKO JAURLARITZA

GOBIERNO VASCO

ENPLEGU ETA GIZARTE
GAIETAKO SAILA

DEPARTAMENTO DE EMPLEO
Y ASUNTOS SOCIALES

Luzarra, 18-1º. 48014. BILBAO
Tel. 94 475 78 80/ Fax. 94 475 94 84
euskarri@avnf-evntf.com
www.euskarri.es

HITZAURREA

Azken urteotan gurasoen aurkako indarkeriak hazkunde nabarmena izan du (GAI). Alde batetik, gurasoen salaketa kopuruak gora egin du, bestetik osasun, judizial eta psikosozial zerbitzuetan eskaerak gora joan dira baita ere.

Azken urteetako memoria judizialek semeengandik gurasoenganako indarkerien salaketen igoera nabarmena batzen dute. Duela gutxi Bizkaian egindako ikerketa batean, nerabeen %7,2ak gurasoei, gutxienez behin, eraso egiten zietela aitortu zuten. 2006an Estatuko Fiskaltza Nagusiak 2.000 salaketa jaso zituen, 2010ean berriz 8.000.

Zer da Gurasoen Aurkako Indarkeria?

Seme-alabek gurasoen edo beraien lekua betetzen duten nagusien aurkako eraso fisikoak (kolpek, bultzadak, objektuak bota), nahiz ahozko erasoak (irain errepikatuak, mehatxuak) edota ez ahozkoen (keinu mehatxatzaileak, gauza maitatuen suntsiketak) jokaera errepikakorrak.

Normalean indarkeriak gora egiten du: deskalifikazioez eta irainez hasi ohi da, gero mehatxuak eta objektuen suntsiketak etortzen dira, eta azkenez eraso fisikoak, hauek gero eta larriagoak izaten dira. Urteetan zehar luzatu ahal den prozesua da eta azpimarratu behar da ez duela helburu zehatz bat : Indarkeria, behin hasten denean, ez da gelditzen ezta erabateko obedientzia, nagusitasuna edota beldurraren bidezko kontrola behin lortu delarik ere.

EZ ZAIZU BAKARRIK ZURI GERTATZEN

- . Gurasoenganako indarkeriak ez ditu desberdintzen pertsonak bizi diren erkidegoagatik, duten kulturagatik , gizarte-mailagatik ezta jatorriagatik ere.
- . Erasoak jasotzen dituztenak edozein sexu eta adineko gurasoak dira (edo beraien lekua betetzen duten nagusiak) , hala ere, guraso nagusiagoek edo guraso bakarrek tratatu txar gehiago jaso ohi dute , eta amek aitek baino gehiago.
- . Gurasoen aurkako indarkeria, ez da “genero-indarkeria”. Semeek zein alabek, antzeko kopuruetan gauzatzen dute. Semeek indarkeria fisikoa erraztasun handiagoz erabiltzen dute, alabek ordea psikologikoa .
- . Agresibitatea eta indarkeria ez dira gauza berdinak, **indarkeria kontrola eta boterea bilatzen ditu.**
- . Seme-alabek indarkeria kontrolatzeko, mehatxu egiteko, menderatzeko eta behartzeko erabiltzen dute.

Gurasoenganako indarkeria era desberdinetan gerta daiteke:

- . Listua botatzea, bultzatzea, jotzea, ostikatzea.
- . Objektuak botatzea, ateetan edo paretetan ukabilkadak ematea.
- . Ahozko beldurrazteak: garrasiak, mehatxuak, irainak, beheramenduak, etab.
- . Manipulazioa.

- . Bere buruaz beste egiteko edo etxetik joateko mehatxuak.
- . Familiaren zein lagunen dirua edota ondasunak lapurtzea.
- . Gurasoek maite dituzten gauzen suntsipena.
- . Gurasoek, seme-alabek eurenganatu dituzten zorrak ordaintzea.
- . Pertsonen segurtasuna eta ongizatea arriskuan ipintzen duen edozein jokaera edo ekintza.

GURASOEN AURKAKO INDARKERIA JASATEN ARI AL NAIZ?

Jarraian datozen sentipenak eta jokaerak nabaritzen badituzu, gurasoen aurkako indarkeria paira dezakezu.

- . Zure seme-alaba molestatzeak beldurra ematen dizu, eta ekiditen saiatzen zara ?
- . Kontuz zabilta bere nahiak eta premiak asmatzeko?
- . Bultzatzen zaitu, jotzen zaitu ala ukabilkadak ematen dizkizu eta zure gauzak edo zure familiarenak apurtzen edo hondatzen ditu?
- . Bere buruari edo zuri min egitearekin mehatxatzen zaitu bere eskaerak betetzen ez badituzu?
- . Zure lagunen edo familiaren aurrean barregarri uzten zaitu edo umiliarazi egiten zaitu?
- . Behin eta berriro kritikitzen zaitu eta isilarazten?
- . Berak nahi duena egiten ez baduzu etxetik joatearekin mehatxatzen zaitu?
- . Bere jokabidearen errudun egiten zaitu?
- . Zure seme-alabarekin duzun harremana ekiditen duzu?

NOLA DESBERDINDU DEZAKEZU EA ZURE SEME-ALABAREN JOKAERA BORTITZA DEN?

Indarkeria ez da arrunta nerabeen artean, ez du umeen, nerabeen ezta gazteen garapenaren parte bat betetzen. Noizbehinka adinaren eta garapenaren arteko loturak zalantzak sortzen ditu, seme-alaben jokaeraren normaltasunaren inguruan dudak sortuz.

Bere jokaera hauetakoren batean bihurtzen ari den jakitea funtsezkoa da:

-Kontrolatzeko modukoa.

-Mehatxatzailea.

-Ikaratzeko modukoa.

Gurasoek beraien senean eta **sentimenduetan konfiantza izan behar dute**, jokaera normalak eta ez funtzionalak direnen artean desberdintzeko orduan.

ZER SENTITU AHAL DA SEME-ALABA BORTITZAK BADITUZU?

Guraso gehienei norbere seme-alabek haien aurkako jokabide bortitzak erabiltzen dituztela onartzea kostatu egiten zaie. Honek emozio-egoera batera eramaten ditu, non jokaera bortitz txikiak **jasatetik** ikasitako **babesgabetasun egoera** batera bideratzen dituen.

Emozio ibilbide hau hurrengoekin bat dator:

. Osasun arazoak

Antsietatea edo depresioa izan dezakezu, hauek zure ongizatea erasan dezakete, loezina gaixotasun fisikoak eta nekea eragiteko probabilitatearekin.

. Arazoak lanean.

- Etxean dituzun arazoak lanera estropolatzen dituzu eta ondorioz, arreta mantentzeko gaitasuna galdu dezakezu.
- Lanari denbora kendu behar diozu, arazoaren gaineko kontuez arduratzeko.
- Kontsultak, aholkularitza, abokatuak, salaketak... familiaren gastuak igo egiten dituzte.

. Ezeztapena

Hainbat gurasori seme-alabak bortitzak direla onartzea kostatzen zaie; adinarekin bat datorren jokaera arrunta dela pentsatzen dute, eta hala nola gaindituko dutela, edo gogo-aldartearen aldaketen ondorioa dela edota estresari erantzun bat .

INDARKERIA ISILEAN MANTENTZEKO BAKARTZEN ZARA?

Sentitzen ohi zara...

- Gutziz bakartuta edo baztertuta
- Laguntza gabe eta egoera honen arduradun bakarra
- Ezerk ez inork ezin zaituela lagundu sentitzen duzu
- Etsita ezin duzulako egoeraren kontrola izan
- Etsita ezin duzulako bizi familiar zoriontsu bat izan
- Seme-alabarekin duzun arazoan ez den ezertan pentsatzeko ez zara gai
- Zure gurasoekin bizi izandakoa gogorarazten dizu

Beldur zara?

Zure etxean ez zara batere seguru sentitzen, beldurrarekin bizi zara eta etorkizunean gertatu ahal dena; zure seme-alaba helduagoa denean, arduratzen zaitu.

Edo lotsa eta beheramendua?

Sentitzen duzu:

Huts egin duzula eta horregatik lotsatzen zara

Oker egin duzula, zalantzan jartzen duzu ama edo aita izateko zure gaitasuna

Zure seme-alabaren jokaeraz arduradun bakarra zalera

Edo galera?

Sentitzen duzu:

. Zure seme-alabek bat-batean aldatu direla.

. Tristura zure familia desegiten ari delako.

. Atsekabea zure umea etxea utzi behar duela ikustean.

. Zure lagunak galtzen dituzula eta senideetatik urruntzen ari zarela.

. Beste guraso batzuek diskriminatzen zaituztela eta horrez gain zure lekua hartzen dutela zure seme alaben aurrean.

Edo tentsioa erlazioan..?

. Zure **bikotearekin**: zure seme-alaben heziketaren gaineko ikuspuntu desberdinak dituzue eta zuen harremana mintzen ari da.

. **Zure senideekin**: ikuspuntu edo iritzi diferenteak ematen dizkizute mintzera heldu ahal zaituztenak eta arazoak sortzen ditu zuen harremanetan

. **Aholkuak ematen dizutenekin**: ez dakitelako zer gertatzen ari den.

. **Gainontzeko seme-alabekin**: beldur zara kaltetuak izan ahal direlako, denbora nahikoa ez emateari beldurra diozu

AZALPEN POSIBLEAK

Nerabeen indarkeriaren arrazoen azalpen posible batzuk:

**Temperamentu biologikoa**

Ume batzuek beste batzuek baino izaera konplexuagoarekin jaiotzen dira, korapilatsuagoa izaten da hezteak, hasiera batetik araei aurre egiten diete, ez dituzte betetzen, ume "bihurriagoak" dira. Baina... lasai egon! "Biologia gizakiaren jatorria da, ez bere patua". Heziketan tinko izatearekin eta bere beharrei modu egokian arduratzearekin, aldatu egingo da.

Faktore sozialak

Azken urteotan gizartean gertatu diren zenbait aldaketak gurasoen aurkako indarkeria ematera laguntzen dute:

- . Seme-alabak edukitzeko media adina igo da, gurasoak gero eta helduagoak dira, eta gero eta energia gutxiago dute seme-alabei aurre egiteko, diziplina mantentzeko eta mugak ipintzeko orduan.
- . Gurasoek lehen baino seme-alaba gutxiago dituzte, seme bakarren igoera garrantzitsu batekin. Seme-alaba kopurua gero eta eskasagoak direnez, saildu eta mimatu behar diren "altxor" bihurtzen dira, "etxeko erregeak" dira.
- . Familia-kideen kopuruaren beherakadarekin eta lanorduen luzapenarekin bat, denbora gutxiago izaten da jolasteko, ipuinak irakurtzeko eta beraiekin egoteko. Gurasoek orekatzeko, frustrazioa sor dezaketen egoerak saihesten dituzte eta horrek, mugak ipintzeko eta autoritateari errespetua izaten irakasteko zailago bihurtzen du.
- . Gizartea permisiboagoa bihurtu da, umeak euren eskubideetan hezi egiten zaie baina ez euren betebeharratan.
- . Gizartearen heziketa-ereduaren eboluzioa zigorretan oinarritu baino sarrietan oinarritzen da eta tolerantzia diziplinan baino, hezitzaileen zigorra ipintzeko gaitasuna murriztera eraman duena.

Faktore familiarrak

- . Familiak non seme-alabak maiz tratatu txarrak ikusi dituzten eta baita ere gurasoek nola indarkeriaren bitartez gaztekei irtenbidea ematen dieten.

Gurasoak:

- . Permisiboegiak, arauak ezartzea oso zaila egiten zaienei.
- . Gehiegizko babesa ematen dutenak, seme- alaben nahi edo desio guztiak asetzeko prest daudenak
- . Beraien rolerkin pozik ez daudenak, deseroso guraso papela bete behar izatearekin.
- . Desbalorizatzen direnak, barregarri geratzen direnak eta ospea kentzen dutenak beraien seme-alaben aurrean.
- . Bat ez datozenak haurrak hezitzeko moduan edo horretarako erabilitako baliabideekin ados ez daudenak
- . Harreman estuegiak dutenak, seme-alabaren batekin.
- . Beraien seme-alaben lagunak direnak, beraien seme-alabak umezurtz utzita.



. Eusten diotenek “familia pozik”eko mitoari eta beraien seme-alabek beraiekiko indarkeria erabiltzen ari direla onartzea kostatzen zaienak

GOGORATU!!

GURASOEN AURKAKO INDARKERIA:



- . Denborarekin ez da desagertzen, alderantziz larriagotzen joaten da.
- . Ez da arrunta, ez umeetan ezta gazteetan ere.
- . Zu ez zara arduradun bakarra
- . Ez duzu zertan jakin behar eginbeharrekoa egoera aldatzeko.
- . Onartezina da.
- . Lan familiarra behar-beharrezkoa da, ezin du nerabeak bere kabuz aldatu.

. Beti ez da jarraia, une batzuetan ez da indarkeriarik egongo edo nerabeak zin egin dezake ez duela indarkeria erabiliko.

. Nerabearekin harremana saihesten du , arlo askotan zure beharra baitu.

ZU EZ ZARA INDARKERIAREN ERRUDUN

Nerabeek, zuri errudun bezala hartzea izan daiteke, probokatzen dituzula eta horren ondorioz indarkeriaz erantzuten dutela esanez. haatik, beste era desberdinak daude amorrua eta estutasunari erantzuteko.

Urte gutxi batzuk arte oso gutxi ezagutzen zen gurasoenganako indarkeria eta horrek gurasoei saihesten die honi buruz askatasunez hitz egitea. arazoa onartzea, identifikatzea, bere izenez deitzea, irteenbidearen bidea hasteko era izaten da.

ZER EGIN ZEURE NERABEA BORTITZA IZATEN HASTEN ARI BADA?



sentitzen duzu.

- . Konfiantzazko norbaitekin hitz egin.
- . Harremanetan ipini osasun zerbitzuekin laguntza bilatzeko, horrekin hurrengo pausuak emango dituzu irteenbiderantz:
- . Indarkeriaren sekretua apurtzen duzu.
- . Egoera berdina bizi ari den jendea ezagutzen duzu.
- . Sinistu edo ulertzen zaituzten beste pertsonak daudela

- . Zure konfiantza areagotzen eta itxaropena berreskuratzen duzu.
- . Errua edota lotsa murrizten dituzu.
- . Zeure jokabideak aldatzen jarraitzera indartzen dizu.
- . Indarkeriari aurre egiteko modu berriak garatzen dituzu.
- . Nerabearekin duzun harremanean zeure jokabideaz ohartzen zara.
- . Komunikaziorako dituzun trebetasunak hobetzen dituzu.
- . Oso garrantzitsua den zerbait: zu zeure burua zaintzen ari zara
- . Poliziarekin harremanetan ipini, jokaera agresiboak arriskuan ipintzen badu zeure ongizatea edo familiako norbaitena.
- . Telefono zenbakien zerrenda bat egin non, larrialdi egoera batean deitu ahal duzun: polizia, senitarteko hurbilak, zerbitzu sozialak, eta abar. Eta eskura eduki.
- . Egoera larri batean, zure seme-alabari etxea uzteko eska diezaiokezu eta "babes" programaren baten sartu. Nahiz eta egitea zaila izan, hau izan liteke egoera bortizari amaiera emateko aukera bakarra.

ZERTAN LAGUNDU DEZAKETE LAGUNAK EDO GERTUEN DAUDEN PERTSONAK?

Gurasoak laguntzeko, beraiek sentitzen; eta bizitzen hari dutena ezagutu behar da, duten egoeraren pertzepzioa ulertu, beraien balore eta sinismen sistema kontutan edukiz eta orainarte ondo egindako gauzak zorionduz .

Aita-amek autoritatea, situazioaren egoeraren ezagutza eta itxaropena berreskuratzea behar beharrezkoa da.



- . Gertu egon behar dutenean beraien bizipenak entzuteko. Kontatzen dizkizuten esperientziak epaitu eta gutxietsi gabe.
- . Ez kritikatu egoera kudeatzeko erabilitako erak, ezta nerabearen jokaera bortitza justifikatu ere.
- . Ulertu eta egoeraren larritasuna ulertzen duzula sentiarazi eta baita behar duten momentuan laguntzeko egongo zarela jakinarazi.
- . Ez dutela gertatzen ari denaren errua ulertzen lagundu iezaiezu
- . Babesa eman, baina utzi beraiek bakarrik erabakiak eta eman beharreko pausoak har dezaten eta honek beraien kontrolaren sentsazioa handituko du.
- . Pribatutasuna errespetatu, baina beraiek eskatzen badizute edo familiako kideren bat arriskuan badago, ezagutzera eman beharko duzu edo laguntza eskatu.

. Gurasoak animatu beraien ongizatea zaintzen jarraitzeko eta beraien beharrez arduratzeko.

. Beraiekin harremanetan jarraitu zure laguntza gogoan izateko.

EGIN BEHAR EZ DENA.

. Zer egin behar duten esan, zeuk egingo zenukeena... gogoratu beraiek bizitzen ari diren egoeran ez zaudela.

. Gurasoen eta nerabearen bitartekari bezala egin. Egitekotan soilik denak ados baldin badadude.

. Nerabeari aurre egin, harremana okertu lezake eta indarkeriaren uneak maizago eta gogorrago izan litezke.

. Egoera konpontzearen arduradun sentitu. Beraien irtenbidearen bilakaeran laguntzeak, ez du esan nahi beraien ordeztu erabakiak hartu behar dituzunik.

LAGUNGARRI IZAN DAITEZKEEN ESTRATEGIAK

1. Arazoaz ohartu eta aldaketaketarekin motibatua egotea. Horretarako profesionalen, lagunaren edota familia artekoen laguntza eta babesarekin kontaktatu da.

Zuen seme-alaben bizitzan hausnartzea erabilgarria izaten da, jakiteko zer gertatzen ari den indarkeriazko jokaerak areagotzeko. Indarkeriaren aitzakiak ez dira bilatu behar: indarkeriazko jokabideak ezin dira justifikatu.

Aitzitik, jokabide desegokia eragiten duen jatorria ulertzeak, lagundu zaitzake era zehatz batean erantzuteko eta irtenbidera bideratzeko.

Baita ere seme- alabeen alde baliagarriak gogoratzea ona izaten da: zer den berataz gustukoaren duzuna, beran trebetasunak eta gustuak, zer gustatzen zaion egitea.

2. ZURE JOKAERAN ALDAKETAK

Zeure jokatzeko eran pentsatzea garrantzitsua da. Zaila izango da, seme-alabaren jokabidea aldatzen saiatzea zeurea aldatu gabe.

Esate baterako, ohituta badaude etxean emandako hitza betetzen ez dela ikusten, zaila izango da beraiek beraien hitza betetzea.

. Pentsatu nola erantzuten diozun bere jokaerei. Erantzun horrek lasaitzen edo, oster, gehiago haserretzen dio?

. Ahulen dituzun ezaugarriak hausnartu. Ze gauza dira egiten edo esaten dituen artean haserretzen zaituztenak?

. Lasaitasuna mantendu, saiatu zaitez ez haserretzen.

. Ez da galtzaile eta irabazleen kontua, baizik eta senitartekoaren harremanak orekatuagoak eraikitzearen prozesu bat hastea baino.

- . Nerabea beti errespetuz tratatu. Ez du inporta zer nolako haserrea sentitzen duzun edo zein umil sentitzen zaren.
- . Ez saiatu gatazka guztiak irabazten.
- . Ohartu zaitetz urduri zaudenean. Pentsatu tentsioaren eragina kaltetuko duela bete behar duzun guraso papera eta baita nerabearekin komunikazioa.

3.BERAK EGINDAKOARI ONDORIOAK EZARRI.

Zuen seme-alabek ikasi behar dute, geure jokaera guztiak ondorioak dituztela: positiboak, beraien jokaera egokia denean (ontzat hartu, maitasun keinuak, rekonpentsak) edo negatiboak, jokaera desegokia denean (gaitzetsi, deserotasun keinuak, zigorrak), beti egindakoarekin zuzenki proportzionalak.

Aldaketa hasteko unerik egokiena benetan indarrarekin, baliabideekin eta babesarekin sentitzen zarenear da.

- . Nerabearentzat ondorioak proportzionalak, garrantzitsuak eta nabarmentsuak izan behar dira.
- . Ondorio hauek noiz eta nola erabili behar dituzun erabaki. Negatiboak badira ez ezarri “sutan zaudela”, itxaron haserrea pasa arte.
- . Nerabeari azaldu, expektatibak bete ezean bete beharreko ondorioak egongo direla.



GOGORATU

- Era desberdin batean jokatzen hastea zaila izaten da. Gerta liteke seme- alaba hasiera batean gaitzotzea, baita txarrera egitea ere. Hobekuntza aurrerago nabarituko da.
- Nerabeak jakin behar du hitzartu dituzuen espektatiben gainean espero den bezala jokatzen ez badu, zuk jokatuko duzula ezarritako ondorioak kontutan edukita eta ez zarela atzera botako.
- Espektatiba errezeekin hasi, zuk dakizkizun beteko dituen espektatibekin, aurrera egin ahal izateko zailagoak direnekin.

KONTROLA BERRESKURATU

Gurasoen aurkako indarkeriaren kasuak, askotan “sekretu familiarrak” izaten dira. Lehenengo pausua kontrola berreskuratzen joateko, isiltasunarekin eta isolamenduarekin bukatzea da.

Nerabeek, askotan ez dute onartzen laguntza profesionalik eta gurasoek hartzen dituzte bere jokaeren errudun, pentsatuz beraiek arazoan ez dutela ezer egiterik.

Seme-alabek arau argiak eta firmeak behar dituzte babestuak eta neurritzuak sentitzeko.

Ezin bestekoa da zeure ongizate eta segurtasunagatik norberaren konfiantza berreskuratzea; norbere jokaeran aldaketaren bat ezartzeak, zeure seme-alaben jokaeran aldaketak sortaraziko ditu.

Irteenbidea bilatzeko helburu duten bideak topatzeko, laguntza taldeetan parte hartzea, bikotearengan laguntza indibiduala bilatzea, lagunetan, familiartekoetan edota profesionaletan laguntza bilatzea komenigarria izaten da.

Zaindu zaitetz eta
indarkeriarekin bukatu!!!



BALIABIDE INTERESGARRIAK**Euskarri. 94 475 78 80.****Eusko Jaurlaritza.****ZUZENEAN 012.** Zerbitzuen informazio orokorra edo hainbat esparruekin zerikusia duten erakundeak.**Enplegu eta Gizarte Sailsa. 94 403 12 07****ZEUKESAN 116111.** Haur eta Nerabeen Laguntzarako Telefonoa. Aholkatzeko, orientatzeko eta Informatzeko doako zerbitzua.**Emakunde 945 01 67 00.** Emakumearen Euskal Erakundea.**Larrialdeen Zentrua. SOS DEIAK. 112****Bizkaiko Foru Aldundia****Nerabe Erasotzaileen Programa. 944 067 295****Gizarte Ekintzaren Sailsa, Zentralita. 944 204 385.** Emakume, Familia eta Haurtzaroaren Departamentuei dagokien informazioa.**Bilboko Udala****Gizarte Ekintza. Gizarte Laguntza Sailsa. 944 204 385****SMUS 944 701 460****Arabako Foru Aldundia****Gizarte Ongizaterako Foru Erakundea. 945 151 015****Gasteizko Udala****Interbentzio Sozialaren Sailaren Munizipalen zentralita. 945 161 616****Gipuzkoako Foru Aldundia****Politika Sozialen Sailsa. 943 112 11****Donostiako udala****Zentralita. 943 481 000**

Lan hau Pereira, Roberto; Montes, Yadira; Ibarretxe, Yolanda; y G. Agruña, Elena-K burutu dute. Adolescent Violence to Parents de Friend, D., Howard, J. y Parker, T. lanetan oinarrituta, bere publikazioa eta difusioa erdaraz egiteko baimenarekin.

BIBLIOGRAFIA

- Friend, D., Howard, J. y Parker, T. (2008) Adolescent Violence to Parents. Melbourne: Inner South Community Health Service.
- Pereira, R. y Bertino, L. (2009). Una comprensión ecológica de la Violencia Filio-parental. *Redes*, 21, 69-90.
- Pereira, R. (Coord.). (2011) Psicoterapia de la violencia filio-parental. Entre el secreto y la vergüenza. Madrid: Morata

**Gurasoen Aurkako
Indarkeri egoeretako
jokaeraren oinarritzko**

2012

Euskarri

Gurasoen Aurkako Indarkeri Esku-hartzea.

Diru-laguntzarekin:



Luzarra, 18-1º. 48014. BILBAO
Tel. 94 475 78 80/ Fax. 94 475 94 84
euskarri@avntf.com
www.euskarri.es